| | | |
|---|---|---|
| | ESP. KODEA. CÓD. EXP. | **2021BOCU0021** |
| ESPEDIENTEA EXPEDIENTE | | |
| TITULARRA TITULAR | BEASAINGO UDALA KULTURA SAILA | |
| TOKIA LUGAR | | |

| | |
|---|---|
| **KULTUR SORKUNTZA DINAMIZATZEKO DIRULAGUNTZAK. OINARRI ARAUTZAILEAK.** | **SUBVENCIONES PARA DINAMIZAR LA CREACIÓN CULTURAL. BASES REGULADORAS.** |
| **1. AURREKARIAK**<br><br>Beasaingo Udalak kultur arloko hainbat esparrutan duen jarrera sustatzailea ez da berria. Horren adibide urtero hitzarmen desberdinak medio aurrera eramaten diren ekitaldiak, emanaldiak, erakusketak etab…<br><br>Kultur sorkuntzari dagokionez, Beasaingo Udaleko aurrekontuetan espreski jasotzen diren beka, sari edo bestelako laguntzak hauek dira:<br><br>• Matematika argazki lehiaketa-sariak.<br>• Beasain idazlehiaketa-sariak.<br>• Loinatz jaietako kartel lehiaketa-sariak.<br>• Beasain Hiria argazki lehiaketa-sariak.<br>• Igartza Literatur Sorkuntzarako Beka Saria<br>• Aire Zabaleko margo sariketa<br>• Igartza Musika Beka<br>• Udal egutegia eratzeko argazki lehiaketa | **1. ANTECEDENTES**<br><br>La actitud promotora del Ayuntamiento de Beasain en diferentes ámbitos del ámbito cultural no es nueva. Ejemplo de ello son los eventos, actuaciones, exposiciones, etc. que se llevan a cabo anualmente en virtud de diferentes convenios.<br><br>En cuanto a la creación cultural, las becas, premios o cualquier otro tipo de ayudas que se recogen expresamente en los presupuestos del Ayuntamiento de Beasain, son las siguientes:<br><br>• Premios concurso fotográfico Matemáticas.<br>• Premios Beasain de Redacción.<br>• Concurso de carteles de las fiestas de Loinatz.<br>• Premios del concurso fotográfico Beasain Hiria.<br>• Beca de Creación Literaria Igartza.<br>• Concurso de pintura al aire libre.<br>• Beca de Música Igartza.<br>• Concurso fotográfico para la elaboración del calendario municipal. |

| | |
|---|---|
| Hala ere, udalaren nahia da kultur sorkuntzaren beste esparru batzuei laguntzak ematea. Horregatik, 2021eko aurrekontuan horretarako partida bat aurreikusi da. | Sin embargo, es voluntad municipal otorgar ayudas a otros ámbitos de la creación cultural. Por ello, en el Presupuesto del año 2021 se ha previsto una partida destinada a tal efecto. |
| Sorkuntza hori sustatzeko eta COVID-19 pandemiak kultura-sektorean sortutako ondorioak arintzen laguntzeko, oinarri hauek prestatu dira, honako hauek kontuan hartuta: | Para fomentar esa creación y ayudar a paliar las consecuencias generadas por la pandemia COVID-19 en el sector cultural, se han elaborado las presentes bases, teniendo en cuenta: |
| • Euskadiko toki-erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legea, eta, zehazki, 17,1 20), 26) eta 27), honako gai hauetan Udalari eskumenak ematen dizkiotenak: | • La ley 2/2016 de 7 de abril de instituciones locales de Euskadi, y en concreto el art. 17,1 20), 26) y 27), que otorgan competencias al Ayuntamiento en las siguientes materias: |
| - Kultura eta kultur jarduerak antolatzea eta sustatzea eta erabilera publikoko kultura-ekipamenduak kudeatzea. | - Ordenación y promoción de la cultura y actividades culturales y gestión de equipamientos culturales de uso público |
| - Euskara sustatzeko eta erabiltzeko politikak normalizatzeko, antolatzeko eta kudeatzeko planak, 7. artikuluan xedatutakoari kalterik egin gabe. | - Planes de normalización, ordenación y gestión de las políticas de fomento y uso del euskera, sin prejuicio de lo dispuesto en el artículo |
| - Genero-berdintasunerako eta ekitatea sustatzeko politikak antolatzea eta kudeatzea. | - Ordenación y gestión de las políticas de igualdad de género y fomento de la equidad. |
| • Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra eta hura garatzeko erregelamendua, 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua. | • La Ley 38/2003 general de subvenciones y su reglamento de desarrollo, aprobado por Real Decreto 887/2006. |
| • Diru-laguntzak arautzen dituen Udal Ordenantza (2018/06/14 GAO). | • La Ordenanza Municipal reguladora de Subvenciones (BOG, 14/06/2018). |
| • Beasaingo udaleko dirulaguntzen Plan estrategikoa 2020-2022 (2. Helburu estrategikoa: Udalerriko ekintza kulturalak babestea. 2.2. Diru-laguntza ildoa: Kultur sorkuntza sustatzea). | • Plan estratégico de subvenciones del Ayuntamiento de Beasain 2020-2022 (Objetivo estratégico 2: apoyar la actividad cultural en el municipio. Línea subvencional, 2.2: fomento de la |

| | |
|---|---|
| | creación cultural). |
| • 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoa.<br><br>• 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirakoa. | • Ley 4/2005 de 18 de febrero para la igualdad de hombres y mujeres.<br><br>• Ley orgánica 3/2007 de 22 de marzo para la igualdad efectiva de mujeres y hombres. |
| **2. XEDEA**<br><br>Beasaingo udalerrian kultura sorkuntza sustatzeko dirulaguntzak eskatzeko eta emateko prozedura-baldintzak arautzea. | **2. OBJETO**<br><br>El objeto de estas bases es otorgar ayudas a la ciudadanía de Beasain para desarrollo de proyectos de creación cultural. |
| **3. DIRUZ LAGUN DAITEZKEEN PROIEKTUAK / JARDUERAK**<br><br>Diruz laguntzeko modukotzat joko dira honako proiektu-mota hauek, betiere euskararen presentzia modu batera edo bestera bermatzen bada:<br><br>1. **Sorkuntza eszenikoa**: edozein motatako testu eszenikoen dramaturgia, dantza-koreografien diseinua, txotxongiloen lanak (testuak eta pertsonaiak sortzea).<br>2. **Obra bisualak eta plastikoak sortzea,** honako disziplina hauek barne hartzen dituztenak: eskultura, forja, bustigintza, urregintza, grabatua, ilustrazioa, artisautza eta oihalgintza.<br>3. **Ikus-entzunezko lanak sortzea**: ikus-entzunezko proiektu artistikoen gidoiak idaztea (publizitatekoak edo sustapenekoak ez direnak), edozein formaturako, eta pieza artistikoak filmatzea eta editatzea.<br>4. **Musika edo soinu-konposizioa**: partiturak idaztea, edozein motatako musika lanak sortzea, pieza | **3. PROYECTOS / ACTIVIDADES SUBVENCIONABLES**<br><br>Se considerarán subvencionables los siguientes tipos de proyectos siempre que se garantice de un modo u otro la presencia del euskera:<br><br>1. **Creación escénica**: dramaturgia de textos escénicos de cualquier tipo, diseño de coreografías de danza, obras de títeres (creación de textos y personajes).<br><br>2. **Creación de obras visuales y plásticas** que incluyan las disciplinas de: escultura, forja, cerámica, orfebrería, grabado, ilustración, artesanía y textil.<br><br>3. **Creación de obras audiovisuales:** redacción de guiones de proyectos audiovisuales artísticos (no publicitarios o de promoción) para cualquier formato y rodaje y edición de piezas artísticas.<br><br>4. **Música o composición sonora**: escritura de partituras, creación de |

| | |
|---|---|
| artistikoak grabatzea eta editatzea.<br>5. **Ekintzailetza edo ikerkuntza proiektuak**: aurreko modalitateetako batean sartzen ez diren proiektuak, kultura sektorearen baitan garatzen direnak, ingurune digitalari, medio berriei eta arte digitalari lotutako proiektuak lehenetsiz.<br><br>6. **Haur eta nerabe literatura helburu duten proiektuak**: Haur zein nerabeentzat sorturiko ipuin edo kontakizunak. Lanak liburu batean argitaratzeko modukoak izan behar dira.<br><br>7. **Poesia**: Sortzaileek poesia arloan sortu ditzaketen lanak. Lanak liburu batean argitaratzeko modukoak izan behar dira. | obras musicales de cualquier tipo, grabación y edición de piezas artísticas.<br><br>5. **Proyectos de emprendizaje o investigación**: proyectos no incluidos en ninguna de las modalidades anteriores, que se desarrollan dentro del sector cultural, priorizando los proyectos relacionados con el entorno digital, los nuevos medios y el arte digital.<br><br>6. **Proyectos dirigidos a la literatura infantil y adolescente:** creación de cuentos o relatos dirigidos al público infantil y juvenil. Los trabajos deben ser susceptibles de ser publicadas.<br><br>7. **Poesía:** creación de obras en el campo de la poesía. Las obras deben ser susceptibles de ser publicadas. |
| **4. DIRUZ LAGUN EZIN DAITEZKEEN PROIEKTUAK / JARDUERAK**<br><br>"Onarpen eta Balorazio Batzordeak" eskumena izango du, kasuz kasu eta aldez aurretik justifikatuta, diru-laguntzen eskaeretako bat baztertzeko, baldin eta:<br><br>• Proiektu bat ez bada, erabat amaitutako obra bat baizik.<br><br>• Ez badira sorkuntza propioko proiektuak, baizik eta lehendik dauden lanen egokitzapenak edo itzulpenak.<br><br>• Eskatzaileak 28.000 euro gordin baino gehiago jasotzen baditu urtean, kultura-eremuren batetik etorriak.<br><br>• Genero-identitatea eta haren edukia diskriminatzen dituzten proiektuak badira, | **4. PROYECTOS / ACTIVIDADES NO SUBVENCIONABLES**<br><br>La "Comisión de Aceptación y Valoración" será competente para excluir, caso por caso y previa justificación, alguna de las solicitudes de subvención, siempre que:<br><br>• No sea un proyecto, sino una obra totalmente acabada.<br><br>• No sean proyectos de creación propia sino adaptaciones de obras existentes o traducciones.<br><br>• La persona solicitante supere los 28.000 € brutos anuales provenientes de algún ámbito cultural.<br><br>• Sean proyectos que discriminen la identidad de género y su contenido |

| | |
|---|---|
| pertsonen eskubideak eta askatasunak urratzea ekar dezaketenak.<br><br>• Kirol-jarduerak edo irakaskuntza-programei lotutakoak badira.<br><br>• Euskararen erabilpena sustatzeko eta normaltzeko udal-ordenantza betetzen ez duten proiektuak badira. | pueda implicar la vulneración de los derechos y libertades de las personas.<br><br>• Se trate de actividades deportivas o vinculadas a los programas de enseñanza.<br><br>• Se traten de proyectos que no cumplan la Ordenanza municipal para fomentar y normalizar el uso del Euskara. |
| **5. ONURADUNAK**<br><br>Laguntza hauek pertsona fisikoentzat dira, baldin eta:<br><br>1. 18 urtetik gorakoak badira.<br><br>2. Azken bi urteetan etengabe Beasainen erroldatuta badaude, erreferentzia gisa 2019-11-30 hartuta:<br><br>3. Kultura-arloan proiektuak edo jarduerak garatzen dituztenak edo hasi nahi dutenak badira.<br><br>Interesdunek gehienez ere 3. Oinarrian adierazitako diruz lagun daitezkeen proiektuetako birentzat aurkeztu ahal izango dute laguntza-eskaera. DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN PROIEKTUAK/JARDUERAK<br><br>Eskatzaile berak diruz lagundu daitekeen proiektu bat baino gehiago aurkezten badu, proiektu bakar baterako bakarrik emango da laguntza. Hori, puntu gehien lortzen dituena izango da, 10. puntuan ezarritako balorazio-irizpideen arabera. | **5. PERSONAS BENEFICIARIAS**<br><br>Estas ayudas están destinadas a personas físicas que:<br><br>1. Sean mayores de 18 años.<br><br>2. Estén empadronadas en Beasain en los dos últimos años de manera ininterrumpida, tomando como referencia el 30-11-2019:<br><br>3. Que desarrollen proyectos o actividades en el ámbito cultural o deseen iniciarse en él.<br><br>Las personas interesadas podrán presentar solicitud de ayuda como máximo para dos de los “proyectos subvencionables” indicados en la Base “3. PROYECTOS/ACTIVIDADES SUBVENCIONABLES”<br><br>Si una misma persona solicitante presentara más de un proyecto subvencionable, sólo se concederá ayuda para un único proyecto. Ese será el que más puntos obtenga en función de los criterios de valoración establecidos en el punto 10. |
| **6. FINANTZAZIOA**<br><br>Oinarri hauetan aurreikusten diren | **6. FINANCIACIÓN**<br><br>El importe de la ayuda prevista a través de |

| | |
|---|---|
| laguntzaren zenbatekoa 15.000,00€koa da, eta honako aurrekontu-partida honen kargura finantzatuko da: 0240.481.330.00.23 sorkuntzarako dirulaguntza. | estas bases asciende a la cantidad de 15.000,00€, y será financiada con cargo a la partida presupuestaria: 0240.481.330.00.23 Subvención a la creación. |
| **7. ESKABIDEAK AURKEZTEA**<br><br>Organo eskudunak onartu ondoren, oinarriak DNBra bidaliko dira eta GAOn argitaratu ondoren, eskabideak aurkezteko epeari hasiera emango zaio, eta **2021eko abenduaren 1ean** amaituko da.<br><br>-Modua:<br><br>Eskabidea oinarri hauetako 1. eranskinean jasotako ereduaren arabera aurkeztu beharko da, eta hurrengo puntuan adierazten diren agiriekin batera aurkeztuko da. Eskabideak honela aurkeztuko dira:<br><br>- Nagusiki, Beasaingo Udalaren erregistro elektronikoaren bidez: http://www.beasain.eus/es/bulego-birtuala<br><br>- Posta zerbitzuaren bidez.<br><br>- Aurrez aurre, Igunean (Informazio bulegoan).<br><br>Eskaera erregistro elektronikoaren bidez aurkezten ez bada, eskaerarekin doan dokumentzioa paperean eta euskarri digitalean aurkeztuko da. | **7. PRESENTACIÓN DE LAS SOLICITUDES**<br><br>Una vez aprobadas por el órgano competente se remitirán a la BDNS y tras la publicación de las mismas en el BOG, se dará inicio al plazo de presentación de solicitudes que finalizará el **1 de diciembre de 2021.**<br><br>-Modo:<br><br>Se deberá presentar la solicitud según modelo que consta en el Anexo 1 de las presentes bases acompañándola de los documentos que se indican en el punto siguiente. Las solicitudes se presentarán:<br><br>- Preferentemente, a través del registro electrónico del Ayuntamiento de Beasain: http://www.beasain.eus/es/bulego-birtuala<br><br>- A través del servicio postal.<br><br>- De manera presencial, en el Igunea (oficina de información)<br><br>Si la solicitud no se presenta a través del registro electrónico, la documentación adjunta se presentará en formato papel y en formato digital. |
| **8. AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK**<br><br>Eskaera-orriarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa:<br><br>• Eskatzailearen edo/eta ordezkariaren | **8. DOCUMENTACIÓN A PRESENTAR**<br><br>Documentación a presentar junto con la solicitud:<br><br>• Copia del Documento de Identidad |

| | |
|---|---|
| Nortasun Agiriaren kopia<br><br>• Kontu korrontearen titularitatea egiaztatuko duen agiria.<br><br>• Diruz laguntzea eskatzen den proiektuaren gaineko azalpen txostena:<br><br>➢ Proiektua letra-estilo eta neurria hauetako batez idatzia izango da: Garamond 12pt, Times New Roman 12pt, Courier 12 pt edo Arial 12 pt.<br><br>➢ Gehienez, 5 orri izango dira bi aldetatik eta 10 orri alde bakar batetik.<br><br>• Proiektuaren gastuen eta diru-sarreren aurrekontu xehatua; diru-sarreren atalean, eskatutako laguntzaren zenbatekoa adierazi beharko da.<br><br>• Beste diru-sarrerak dauden edo/eta beste erakunde batzuetan diru-laguntza eskatu duen adierazten duen zinpeko adierazpena. | de la persona solicitante.<br><br>• Documento que acredite la titularidad de la cuenta corriente.<br><br>• Informe explicativo del proyecto para el que se solicita la subvención:<br><br>➢ El proyecto deberá estar redactado en letra: Garamond 12pt, Times New Roman 12pt, Courier 12 pt o Arial 12 pt.<br><br>➢ El número máximo de hojas será de 5 y de páginas de 10.<br><br>• Presupuesto detallado de gastos e ingresos del proyecto, debiendo consignarse en el apartado de ingresos el importe de la ayuda que solicita.<br><br>• Declaración jurada de la existencia de otros ingresos y/o solicitud de subvención en otras entidades. |
| Eskabidean edo harekin batera doan nahitaezko dokumentazioan akatsen bat badago edo osatu gabe dagoela balioesten bada, hamar eguneko epea emango zaie interesdunei hautemandako akatsak zuzentzeko, Udalak egindako errekerimendua jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.<br><br>Emandako epea igaro eta akatsak zuzendu ez badira, diru-laguntzarako eskabidean atzera egin dela ulertuko da, eta beste izapiderik gabe prozedura artxibatuko da. | Cuando en la solicitud o en la documentación preceptiva que la acompaña hubiere algún error o se valore como incompleta, se otorgará a las personas interesadas un plazo de diez días, contados a partir del día siguiente al de la notificación del requerimiento efectuado por el Ayuntamiento para subsanar los defectos detectados.<br><br>Transcurrido el plazo concedido sin que los errores hayan sido subsanados, se tendrá por desistida la solicitud de subvención, procediéndose sin más trámite al archivo del procedimiento. |

| | |
|---|---|
| Aukeratu gabeko lanak itzuli egingo dira, eta egileek edo horien ordezkariek jaso ahal izango dituzte, behin betiko ebazpena eman ondorengo hiru asteetan. Horrela egin ezean baztertu egingo dira eta Beasaingo Udala ez da arduratuko itzultzean galtzen diren lanez edota kopiez. | Los trabajos no seleccionados serán devueltos y podrán ser recogidos por sus autores/as o sus representantes dentro de las tres semanas siguientes a la resolución definitiva, de lo contrario se desecharán y el Ayuntamiento de Beasain no se hará cargo de los trabajos y/o copias que se pierdan en su devolución. |
| **9. DIRU-LAGUNTZA EMATEKO PROZEDURA**<br><br>Laguntza hauek 10. BALORAZIO IRIZPIDEAK puntuan azaldutako balorazio-irizpideak kontuan hartuta emango dira:<br><br>Kultura arloari dagokio oinarri hauetan aldez aurreko laguntzak kudeatzea. Balorazio eta Onarpen Batzordeko Teknikariek arduratuko dira aurkeztutako eskabideak aztertzeaz eta ebaluatzeaz ondorengo oinarrian adierazitako balorazio-irizpideak kontuan hartuta.<br><br>Laguntzak emateko edo ukatzeko, Alkatetzaren ebazpena emango da, eta ebazpen hori diru-laguntza eskatzen duenari jakinaraziko zaio.<br><br>Dirulaguntza jasotzeko baldintza hauek bete behar dira:<br><br>• Udal Ogasunarekin zorrik ez izatea.<br><br>• Gipuzkoako Foru Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak egunean izatea. Egiaztapen hori ofizioz egingo da eskumeneko administrazioei informazioa eskatuz, interesduna modu arrazoituan aurka agertzen ez bada. | **9. PROCEDIMIENTO PARA OTORGAR LA SUBVENCIÓN**<br><br>Las presentes ayudas se otorgarán teniendo en cuenta los criterios de valoración expuestos en el punto 10. CRITERIOS DE VALORACIÓN<br><br>Corresponde a la subárea de cultura la gestión de las ayudas previstas en estas bases. El personal técnico de la comisión de Valoración y Aprobación se encargará del análisis y evaluación de las solicitudes presentadas teniendo en cuenta los criterios de valoración señaladas en la base siguiente.<br><br>La concesión o denegación de las ayudas se realizará mediante resolución de Alcaldía, que se notificará a la persona solicitante de la subvención.<br><br>Para poder recibir la subvención es necesario:<br><br>• No tener deudas con la Hacienda municipal.<br>• Hallarse al corriente de las obligaciones tributarias con la Hacienda Foral de Gipuzkoa y la Seguridad Social. Esta verificación se efectuará de oficio solicitando información a las administraciones competentes salvo que la interesada se oponga de manera motivada. |
| | |

| 10. BALORAZIO IRIZPIDEAK | 10. CRITERIOS DE VALORACIÓN |
|---|---|
| Aurkeztutako proiektuak baloratzeko unean erabiliko diren irizpideak honako hauek izango dira:<br><br>• Proiekutaren interesgarritasuna, kalitatea eta orijinaltasuna/berrikuntza: 0 - 40 puntu.<br><br>• Sortzaileak garaturiko lehen lana izatea: 10 puntu<br><br>• Proiektu berean kultur disziplina bat baino gehiago erabiltzea: 0 - 10 puntu<br><br>• Beasaingo kultur arloari ekarpena egitea:0-15 puntu<br><br>• Proiektu osoan genero ikuspegia txertatzea; hau da, bai justifikazioan, eta bai helburuetan, jardueretan, metodologian eta ebaluazio adierazleetan ere: 0-15 puntu.<br><br>• Euskararen normalizazioan eta erabileran lagunduko duten proiektuak (hedapena, sustatpena, ikerketa, berrikuntza…): 0-10 puntu.<br><br>Puntuaziorik altuena 100 puntukoa izango da eta laguntza jaso ahal izateko, gutxienez, 50 puntu lortu beharko dira. | Los criterios que se utilizarán en la valoración de los proyectos presentados serán los siguientes:<br><br>• Interés, calidad y originalidad/novedad del proyecto: de 0 a 40 puntos.<br><br>• Primer trabajo desarrollado por el creador o creadora: 10 puntos.<br><br>• Utilización de más de una disciplina cultural en un mismo proyecto: de 0 a 10 puntos.<br><br>• Aportación a la cultura del municipio de Beasain: 0-15 puntos.<br><br>• Se valorará la inclusión de la perspectiva de género en todo el proyecto, tanto en la justificación como en los objetivos, en la elaboración de las actividades y en los indicadores de valoración: 0-15 puntos.<br><br>• Proyectos que contribuyan a la normalización y uso del euskera (difusión, promoción, investigación, innovación…): 0-10 puntos<br><br>La puntuación máxima será de 100 puntos y la puntuación mínima para obtener la ayuda será de 50 puntos. |
| **11. ONARPEN ETA BALORAZIO BATZORDEA**<br><br>Onarpen eta Balorazio Batzordea, Herritar sailekoak diren Kultura azpiarloko teknikariak, Hizkuntza Politika azpiarloko teknikariak eta Berdintasun azpiarloko | **11. COMISIÓN DE ACEPTACIÓN Y VALORACIÓN**<br><br>La Comisión de Aceptación y Valoración estará compuesta por personal técnico del subárea de Cultura, del subárea de Política Lingüística y del subárea de Igualdad del |

| | |
|---|---|
| teknikariak osatuko dute.<br><br>Batzorde horrek, egoki iritziz gero, dagokion diziplinako adituen iritzia eskatuko du.<br><br>Batzorde honen zereginak honako hauek izango dira, besteak beste:<br><br>• Aurkeztutako eskaerak onartzea.<br><br>• Onartutako proiektuak aztertzea eta baloratzea.<br><br>• Diru-laguntzen kudeaketa eta lanak burutzea. | área de Ciudadanía.<br><br>Esta comisión solicitará, si así lo estima oportuno, la opinión de personal experto en la disciplina correspondiente.<br><br>Las funciones de esta Comisión serán, entre otras, las siguientes:<br><br>• Aceptación de las solicitudes presentadas.<br><br>• Análisis y valoración de los proyectos aprobados.<br><br>• Gestión de las subvenciones. |
| **12. JARRAIPEN ETA EBALUAZIO BATZORDEA**<br><br>Batzorde honek, gutxienez, Onarpen eta Balorazio Batzordearen kideak diren teknikariak eta Udalbatza osatzen duten alderdi politikoen ordezkari bana izango du.<br><br>Batzorde honen zereginak hauexek izango dira:<br><br>• Arduradun teknikoak urtero egin beharreko txostenaren (Egitasmo Estrategikoak kontrola eta jarraipen atalean adierazten duena) balorazioa egitea.<br>• Oinarri hauetan aurreikusitako helburuen lorpena baloratzea.<br>• Udal kultura eremuan izandako eragina aztertzea.<br>• Diru-laguntza hauen prozesua doitzea. | **12. COMISIÓN DE SEGUIMIENTO Y EVALUACIÓN**<br><br>Esta Comisión estará compuesta, al menos, por personal técnico de la Comisión de Aceptación y Valoración y por una persona en quien de cada uno de los grupos municipales que integran la Corporación, delegue su representación.<br><br>Las funciones de esta Comisión serán las siguientes:<br><br>• Valoración del informe anual a realizar por el responsable técnico (que el Plan Estratégico señala en el apartado de control y seguimiento).<br>• Valorar la consecución de los objetivos previstos en estas bases.<br>• Análisis de la incidencia en el ámbito cultural municipal.<br>• Ajustar el proceso de estas subvenciones. |
| **13. DIRU-LAGUNTZAREN ORDAINKETA**<br><br>Dirulaguntza deialdi honetarako gehieneko | **13. ABONO DE LA SUBVENCIÓN**<br><br>El crédito máximo disponible para esta |

| | |
|---|---|
| kreditu erabilgarria 15.000 €-koa izango da. Diru kopuru hau eman daitekeen gehinekoa izango da.<br><br>Aurkeztutako aurrekontuaren %75a lagunduko da gehienez eta, gehienez ere, 3.000€ko laguntza jasoko du proiektu bakoitzak. Irizpide honek mugatuko ditu laguntza kopurua eta laguntza horien kopuruak.<br><br>Programa honen kontura emandako dirulaguntzak bi zatitan ordainduko dira: % 50 diru-laguntza emateko ebazpena onartzen denean, eta gainerakoa ekimena justifikatzeko dokumentazioa aurkezten denean.<br><br>Emandako diru-laguntza, bankuko transferentzia bitartez ordainduko da pertsona onuradunak adierazitako kontu korrontean. | convocatoria de subvenciones será de 15.000 €. Esta cantidad será el máximo que se pueda conceder.<br><br>Se subvencionará como máximo el 75% del presupuesto presentado y como máximo 3.000€ por proyecto. Este criterio limitará el número de ayudas y las cuantías de las mismas.<br><br>Las subvenciones concedidas con cargo a este programa se abonarán en dos pagos, el 50% al aprobarse la resolución de concesión y el resto a la presentación de la documentación justificativa de la iniciativa.<br><br>La subvención concedida se abonará mediante transferencia bancaria en la cuenta corriente que indique la persona beneficiaria. |
| **14. JUSTIFIKATZEKO EPEA ETA MODUAK**<br><br>Gastuen justifikazioa 2022ko apirilaren 30a baino lehen egingo da, eta honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:<br><br>• Dirulaguntzaren xede den proiektua gauzatu dela egiaztatzen duen dokumentazioa.<br><br>• Diru-sarreren eta gastuen balantze ekonomikoa.<br><br>• Egindako gastuen zerrrenda eta horien egiaztagiriak: fakturak.<br><br>Udalari aurkezten zaizkion justifikazioetan egiaztatzen bada diruz lagundutako proiektuaren azken kostua onartutako aurrekontua baino txikiagoa dela, dirulaguntzaren zenbatekoa murriztu egingo | **14. PLAZO Y FORMAS DE JUSTIFICACIÓN**<br><br>La justificación de los gastos se realizará antes del 30 de abril de 2022, presentando la siguiente documentación:<br><br>• Documentación acreditativa de la materialización del proyecto para el cual se solicita la subvención.<br><br>• Balance económico de ingresos y gastos.<br><br>• Relación de los gastos realizados y justificantes de los mismos: facturas originales.<br><br>Si en las justificaciones que se presenten al Ayuntamiento se comprobase que el coste final del proyecto subvencionado fuese menor que el presupuesto aprobado, se procederá a minorizar el importe de la |

| | |
|---|---|
| da aurkeztutako gastuen proportzioan, dirulaguntza ordaintzeko baldintzak kontuan hartuta. | subvención en proporción a los gastos presentados, teniendo en cuenta las condiciones de abono de la subvención. |
| **15. LAGUNDUKO EZ DIREN GASTUAK**<br><br>Ez dira onartuko diruz laguntzeko gastu moduan:<br><br>• Gastuen oharrak eta beste dokumentu batzuk, legezko balioaz faktura edo egiaztagiri jotzeko eska tzen diren arauzko baldin tzak bete tzen ez badituzte.<br><br>• Bazkari, afari edo ostalaritza zerbitzukoak diren beste batzuen kostuak, diruz lagundutako ekin tzan parte har tzen dituztenekin sortutakoak izan ezik, eta hala denean, egindako gastuaren eta lortu nahi den helburuaren arteko proportzionaltasuna gorde beharra dago. | **15. GASTOS NO SUBVENCIONABLES**<br><br>No serán objeto de subvención las siguientes actividades o conceptos:<br><br>• Notas de gastos y otros documentos que no cumplan las obligaciones reglamentarias exigidas para la emisión de facturas o justificantes con valor legal.<br><br>• Los costes del servicio de comidas, cenas u otros de hostelería, excepto los generados con los participantes en la acción subvencionada, y en su caso, la proporcionalidad entre el gasto realizado y la finalidad perseguida. |
| **16. BATERAGARRITASUNA**<br><br>Oinarri hauen arabera emandako diru-laguntzak helburu berarekin ematen diren beste diru-laguntzekin bateragarriak izango dira, beti ere gain-finantziaziorik gertatzen ez bada. | **16. COMPATIBILIDAD**<br><br>Las subvenciones concedidas conforme a las presentes bases serán compatibles con aquellas otras que, teniendo el mismo fin, pudieran concederse, siempre que de ello no se derive sobrefinanciación. |
| **17. DIRULAGUNTZAREN BALDINTZAK EZ BETETZEA**<br><br>JUSTIFIKATZEKO EPEA ETA MODUAK atalean zehaztutako datarako dokumentazioa aurkezten ez bada, diru-laguntza itzultzeko prozedura hasiko da. | **17. INCUMPLIMIENTO DE LAS CONDICIONES DE LA SUBVENCIÓN**<br><br>En el caso de que no se presente para la fecha establecida la documentación citada en el apartado PLAZO Y FORMAS DE JUSTIFICACIÓN, se iniciará procedimiento de reintegro de la subvención. |
| | |

| 18. ERREKURTSOAK | 18. RECURSOS |
|---|---|
| Honako oinarri hauen aurka berraztertze ko errekurtsoa aurkez daiteke, hilabeteko epean, deialdia onartu duen organo eskudunaren aurrean; bestela, zuzenean kontra egin daiteke bi hilabeteren buruan Administrazioarekiko Auzi Epaitegiaren aurrean.<br><br>Aipatu epeak oinarri hauek argitaratu eta hurrengo egunetik hasiko dira zenba tzen bi kasuetan. | Contra las presentes bases podrá interponerse, en el plazo de un mes, recurso de reposición ante el órgano competente que haya aprobado la convocatoria, o, impugnarla directamente en el plazo de dos meses ante el Juzgado de lo Contencioso Administrativo.<br><br>Los plazos se contarán en ambos casos a partir del día siguiente al de la publicación de las presentes bases. |